


Arantzako sorgina



Bazen behin, Nafarroako Arantza herrian, Joxepa izeneko emakume zahar bat.

Egunez, Joxepak sendabelarrak biltzen zituen herriko jendeari laguntzeko. Horregatik herriko jendeak maite zuen.



Gauetz, katu beltz bat ibiltzen zen herrian; katu beltz hori etxeetara sartzen zen eta txoko guztietatik ibiltzen zen.


Gau batean, katu beltz hori Anttonioren etxera sartu zen tximiniatik.



Bat-batean, Anttoniok, etxeko gizonak, etxearen barruan katu beltza ikusi eta makila bat bota zion.

Anttoniok makilarekin katu beltza jo eta katuari hanka hautsi zion!

Orduan,
katuak ateko zulo batetik ihes egin zuen.



Hurrengo egunean,
Joxepa herriko azokara joan zen.
Herrenka zebilen Joxepa.
Zergatik?
Joxepak hanka hautsita zuelako!

Anttonio ere azokara joan zen
erosketak egitera.
Orduan Anttoniok Joxepa
herrenka ikusi zuen.



- Egun on Joxepa! Zer pasatu zaizu? Zergatik zabilta herrenka?
- Atzo paseatzera atera nintzen baina erori nintzen eta mina hartu nuen hankan.
- Atzo paseatzera? Eta katu beltz bat ez zenuen ikusi? Nik hanka hautsi nion katu beltzari!
- Ez, ez nuen ikusi, ez...

Eta Joxepa joan egin zen.
Antonio harrituta gelditu zen.



Egun batean Joxepa gaixotu zen.
Oso gaixorik zegoen eta lasai gelditzeko sekretua
norbaiti kontatu behar zion.
Joxepa Antonioz oroitu zen eta etxera etortzeko
deitu zion.

Antonio Joxeparen etxera joan zen eta
galdetu zion:

- Kaixo, zer moduz zaude?
- Gaixorik, oso gaixorik nago.
- Zer nahi duzu, Joxepa?
- Sekretu bat kontatu!
- Zein sekretu?




- Katu beltz hura... gogoratzen duzu?
- Bai, bai...
- Katu beltz hura, hanka hautsia zuena.
- Bai, bai...
- Katu beltza... ni nintzen!

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan.

Hiztegia:

- . Sendabelarra: sendatzeko erabiltzen den belarra edo landarea.
- . Hautsi: puskatu, apurtu
- . Herrenka: mainguka, hanka baten mina.




(Herri ipuina, moldatua)

IZENA:.....DATA:.....

Arantzako sorgina- Ariketak

Jarri X erantzun egokiaren parean.



1. Nork kontaktzen du ipuin hau?

- | | |
|--------------------------|-------------------------|
| <input type="checkbox"/> | Katu beltzak |
| <input type="checkbox"/> | Sorginak |
| <input type="checkbox"/> | Anttonioren lagun batek |
| <input type="checkbox"/> | Narratzaileak |

2. Egunez Joxepak...

- | | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | ...etxeko lanak egiten zituen. |
| <input type="checkbox"/> | ...belarrak biltzen zituen mendian. |
| <input type="checkbox"/> | ...belarrak biltzen zituen etxea apaintzeko. |
| <input type="checkbox"/> | ...lo besterik ez du egiten. |

3. Gauez Arantza herrian...

- | | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | ...sorginak katu beltza harrapatzen zuen. |
| <input type="checkbox"/> | ...katu beltza ibiltzen zen. |
| <input type="checkbox"/> | ...katu beltza mendira doa. |
| <input type="checkbox"/> | ...sorginak mendian belarrak biltzen ditu. |



4. Zer egin zuen Anttoniok katu beltza ikusi zuenean? Eta zer gertatu zen ondoren? (Idatzi)

.....
.....

5. Irakurri ondorengo lau esaldiak. Zein da egia?

Katuaren izena Anttonio zen.

Katu beltzak makila bota zion.

Joxepak sendabelarrak biltzen zituen.

Arantza herrian bakarrik katuak bizi ziren.

6. Ordena itzazu ipuinaren zati hauek denboraren arabera:
(1. 2. 3. 4.)

Anttoniok Joxepa azokan ikusi du.

Joxepa herriko azokara joan da, herrenka.

Joxepak sendabelarrak biltzen ditu.

Anttoniok katu beltzari makila bat bota dio.

7. Nola sartu eta atera zen katu Anttonioren etxetik? Esan zein den egia (E).

Tximiniatik sartu eta zulotik atera zen.

Zulo batetik sartu eta tximiniatik atera zen.

Leihotik sartu eta zulotik atera zen.

Tximiniatik sartu eta atetik atera zen.

8. Joxepa herrenka zebilen; zergatik?

.....
.....

9 Lotu gezi baten bidez antonimoak. →

lasai	gaztea
sartu	txuria
beltza	urduri
zaharra	atera

10. Testuan katua agertzen da, baina herrietan beste animalia batzuk ere bizi dira. Idatzi herrietan bizi diren beste animalia batzuen izenak.

.....
.....

11. Testu honetan galdera marka (?) eta harridura marka (!) esaldiaren bukaeran bakarrik agertzen dira. Zergatik?

- | | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | Hasieran ez dira jartzen, maiuskulaz hasten direlako. |
| <input type="checkbox"/> | Euskaraz, esaldiaren bukaeran bakarrik jartzen direlako. |
| <input type="checkbox"/> | Ahaztu egin zaielako hasieran jartzea. |
| <input type="checkbox"/> | Euskaraz ez dira jartzen galdera eta harridura markak. |